

## EGK-k Maialen Olabe presidentia bezala berraukeratu eta Batzorde Iraunkorra berritu du

- Olabe (Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea) hurrengo bi urteetarako hautatu dute presidentia bezala; Lulia Caraseva (Mujeres Jóvenes de Euskadi) izango da presidenteorde
- “Gazteon giza eskubideen urraketak deitoratzeko protokoloa”, “Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloaren” berrikuspena eta “Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana (2017-2020)” onartu dira

Bilbon, 2017ko martxoaren 11an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gaur ospatu duen 37. Batzar Orokorrean hainbat erabaki garrantzitsu hartu ditu. 2016ko ekainean egindako Ezohiko Batzarrean Maialen Olabe Aguirre (Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea) presidentia izendatu zuen elkarten plataformak eta gaurko batzarrean beste bi urterako berretsi dute erabakia. Era berean, bertaratutako elkarteek Lulia Caraseva (Mujeres Jóvenes de Euskadi) izendatu dute presidenteorde. Hurrengo bi urteetarako eraturako Batzorde Iraunkorra honakoa da:

- **Presidenta:** Maialen Olabe Aguirre (Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea)
- **1. presidenteordea:** Lulia Caraseva (Mujeres Jóvenes de Euskadi)
- **Idazkaria:** Mikelats Ochoa de Chinchentru (JSE-EGAZ)
- **Diruzaina:** Aimar Rico (Uzturre Gazte Bilgunea)
- **Bokalak:** Eusko Gaztedi, Kale Dor Kayiko, Gazte Kanpusa, Gazte Abertzaleak eta Alevines Vascos

Bilboko La Bolsa auzo etxean (John Jauregian) egindako batzarrean ez da kide kopuruan aldaketarik egon, ez kide berririk ezta utzi duen elkarerik ere. Hau da, 57 elkarte osatzen dute plataforma. Honetaz gain, 2016an burututakoaren memoria eta 2017rako aurrekontua eta lan-plangintza aho batez onartu dira. Aurreko urteetan sinatutako hitzarmenez gain, Eusko Jaurilaritza (Lehendakaritza, Gazteria Zuzendaritza eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia eta Emakunde), Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiarekin eta Gasteiz eta Bilboko udalekin, 2017rako Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatuko du EGK-k.

### Diskurtsoa osatu eta berritzeko hainbat txosten onartu dira

37. Batzar Orokorrean “Gazteon giza eskubideen urraketak deitoratzeko protokoloa”, “Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloaren” berrikuspena eta “Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana (2017-2020)” onartu ditu. Era honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bere diskurtsoa osatu eta berritu du egun gazteriarentzat garrantzizkoak diren gaietan.

“Gazteon giza eskubideen urraketak deitoratzeko protokoloa” dokumentuaren helburua “gaztearen jatorria, kultura, erlijioa edo ideologia politikoa” oinarri duten Giza Eskubideen urraketak deitoratzea da urraketa eragiten duena eragile, gazte-talde edo gaztea izanda ere.

Era berean, 2016an izandako Indarkeria Matxista kasu ugarien harira, protokoloa birformulatu da “gazteriaren Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGBTI+fobikoko kasuak ematen direnean salaketa publikoa era egituratu batean egitea” baimentzeko.

Hirugarrenik, EGK-ko “Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana (2017-2020)” onartu da aho batez. Txosten honen bitartez neurri zehatzak eta jarraipen eta ebaluazio jarraibideak egituratu dira. Helburu nagusia Berdintasuna “zeharkako balore gisa ezartzea” eta “enpresa-arloko hainbat eremu genero ikuspegitik kudeatzea” da.

Azkenik, EGK osatzen duten elkarteek hainbat proposamen aurkeztu dituzte. Eztabaidaren ostean, Batzorde Iraunkorraren Gazte Abertzaleak, Acción Católica General eta Ezker Anitza elkarteak aurkeztutako proposamenak onartu dira.

Ander Añibarro, Eusko Jaurlaritzako Gazteria saileko zuzendaria izango dena eta Maitane Leizaola, Bizkaiko Foru Aldundiko Behatokiko zuzendaria batzarrean ere egon dira eta bertaratu diren taldeetako ordezkari eta gonbidatuekin hitz egiteko aukera izan dute. Euren interbentzioan EGKekin izandako eta izango den harremana azpimarratu dute, gazteekin zuzenean hitz egiteko eta euren iritzia jasotzeko aukera delako.

EGKren egunerokotasuna jarraitzeko, [www.egk.eus](http://www.egk.eus) webgunean sartu, [Piztu!](#) buletinean harpidetu edo [Facebook](#), [Twitter](#) eta [Instagram](#) orrialdeak jarraitzea gomendatzen dugu.